**Recurso 1/2014 Errekurtsoa**
**Resolución 1/2014 Ebazpena**

Lehendakaria / Presidente
Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea / Vocal
Mª Aranzazu Arana Learte

Idazkari - Kidea / Vocal - Secretaria
María Yeregui Hernández

**IMPRENTA UNIVERSAL SL enpresak errekurtso berezi bat jarri zuen Ogasun eta Finantzetako Departamentuko diputatuak emandako 2013ko azaroaren 26ko 1012/2013 Foru Aginduaren aurka, zeinaren bidez, SIGNE SA enpresari esleitu baitzitzaion bingo izeneko jokoaren konposizioa egin, inprimatu eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiei banatzeko zerbitzuak emateko kontratua. Aipatutako errekurtsoari dagokionez, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, 2014ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, eta goian adierazitako kide guztiak bertaraturik, aho bateko erabaki hau hartu du:**

**En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por IMPRENTA UNIVERSAL, S.L. contra la Orden Foral 1012/2013, de 26 de noviembre de 2013, de la Diputada del Departamento de Hacienda y Finanzas, por la que se adjudica a la empresa SIGNE, S.A. el contrato para la prestación de los servicios de composición, impresión y distribución de cartones del juego denominado bingo a las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada el día 14 de enero de 2014, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.**

## AURREKARIAK

**LEHENA.-** 2013ko abenduaren 18an, Ogasun eta Finantzetako Departamentuko erregistroan Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratibora zuzendutako idazki bat sartu zen; idazki horren bidez, (…), IMPRENTA UNIVERSAL SL merkataritzako sozietatearen izenean eta ordezkaritzan ziharduela, kontratazio-alorreko errekurtso berezia jarri zuen Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2013ko azaroaren 26an SIGNE SA enpresari aipatutako zerbitzua esleitzeko hartutako erabakiaren aurka (575/2013 zk.).

Hala ere, ulertu behar da errekurtsoa Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratibo honen aurrean jarri zela, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzetako Departamentuko diputatuak emandako azaroaren 26ko 1012/2013 Foru Aginduaren aurka, izan ere, errekurtsoa jartzeko idazkiarekin batera, eta bi zenbakiko agiri bezala, aipatutako foru-aginduaren kopia aurkeztu zen, eta hala adierazita dago errekurtsoa jarri duen enpresak hutsak zuzentzeko aurkeztutako idazkian; aipatutako idazkia 2013ko abenduaren 27an sartu zen Ogasun eta Finantzetako

## ANTECEDENTES DE HECHO

**PRIMERO.-** El día 18 de diciembre de 2013 tuvo entrada en el registro del departamento de Hacienda y Finanzas un escrito dirigido al Órgano Administrativo Foral de Recursos Contractuales por el que (…), actuando en nombre y representación de la mercantil IMPRENTA UNIVERSAL S.L., interpone recurso especial en materia de contratación contra el Acuerdo nº 575/2013 adoptado por el Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Álava de fecha 26 de noviembre de 2013 por el que se adjudicó el referido servicio a la empresa SIGNE, S.A.

El recurso se ha de entender interpuesto, no obstante, ante este Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, y contra la Orden Foral 1012/2013, de 26 de noviembre, de la Diputada Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, porque acompaña al escrito de interposición como documento número dos copia de la referida Orden Foral y así lo indica en escrito de subsanación presentado por la empresa recurrente, que tuvo entrada el día 27 de diciembre de 2013 en el registro del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Departamentuko erregistroan.

Errekurtsoa jartzeko idazkiarekin batera, parte-hartzailearen ordezkaritzaren egiaztagiria aurkeztu zen, eta, halaber, errekurtsoa jarri zaion ebazpenaren kopia zein azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuak (SPKLTB) 44.1. artikuluan adierazitako aurretiazko iragarkiaren kopia, abenduaren 17an kontratazio-organoaren aurrean aurkeztutako idazki baten bidez. Horrez gain, errekurtsogileak bere eskubidearen oinarriak azaltzeko agiria ere gehitu da.

Al escrito de interposición acompaña el documento que acredita la representación del interviniente, así como copia de la resolución recurrida y del anuncio previo al que se refiere el artículo 44.1 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre (TRLCSP), efectuado mediante escrito presentado el día 17 de diciembre ante el órgano de contratación. Se acompaña también documento en el que la recurrente funda su derecho.

**BIGARRENA.-** SPKLTBren 46.2. artikuluaren bigarren paragrafoan xedatutakoari jarraituz, Ogasun eta Finantzetako Departamentuko foru-diputatuak, abenduaren 30eko ofizio baten bidez, errekurtsoa igorri zion auzitegi honi, aipatutako departamentuan egindako administrazio-kontratazioaren espedientearen kopiarekin batera (103 orri) eta Arabako Foru Aldundian izapidetutako administrazio-kontratazioaren espedientearen kopiarekin batera; horrez gain, Ogasun eta Finantzetako Departamentuko Idazkaritza Teknikoak emandako txostena ere igorri zuen, non, errekurtsoa jartzeko arrazoiak aztertu eta gero, ondorioztatu baita ezetsi egin beharko litzatekeela. Hori guztia 2014ko urtarrilaren 3an sartu zen Auzitegiko erregistroan.

**SEGUNDO.-** Conforme a lo dispuesto en el párrafo segundo del artículo 46.2 TRLCSP, mediante oficio de 30 de diciembre la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas remitió el recurso a este Tribunal, junto con copia del expediente administrativo de contratación seguido en dicho Departamento, que consta de 103 folios, y copia del expediente administrativo de contratación seguido en la Diputación Foral de Álava, además del correspondiente informe de la Secretaría Técnica del Departamento de Hacienda y Finanzas, en el que, tras examinarse los motivos del recurso, se concluye que debería ser desestimado. Todo lo cual tuvo entrada en el registro del Tribunal el día 3 de enero de 2014.

**HIRUGARRENA.-** Arabako Foru Aldundian egindako administrazio-kontratazioaren espedientean, kontratazioaren alorreko errekurtso berezi bera jasota dago, diputazio horretako Kontratu Errekurtsoen Foru Organo Administratibora zuzenduta, eta Arabako Aldundiko Diputatuen Kontseiluak onartutako kontratu beraren esleipen-egintzaren aurka jarrita.

**TERCERO.-** En el expediente administrativo de contratación seguido ante la Diputación Foral de Álava se encuentra idéntico recurso especial en materia de contratación dirigido al Órgano Administrativo Foral de Recursos Contractuales de aquella Diputación e interpuesto contra el correspondiente acto de adjudicación del mismo contrato adoptado por el Consejo de Diputados de la Diputación de Álava.

Errekurtso hori ezetsi egin da 2014ko urtarrilaren 9ko 4/2013 Ebazpenaren bidez, kontratuaren esleipenduna den SIGNE SA enpresari entzun eta gero.

Este recurso ha sido desestimado por Resolución nº 4/2013, de 9 de enero de 2014, previa audiencia a la empresa SIGNE S.A., adjudicataria del contrato.

Kontratuaren esleipendunak Arabako Foru Aldundiko Kontratu Errekurtsoen Foru Organo Administratiboaren aurrean aurkeztutako alegazioak espediente honi gehitu zaizkio, eta, hala, betetzat eman da SPLTBren 46.3. artikuluan aurreikusitako entzuteko izapidea. Alegazioen idazkian, kontratuaren esleipendunak errekurtsoa ezestea eskatzen du.

Las alegaciones presentadas por la adjudicataria del contrato ante el Órgano Administrativo Foral de Recursos Contractuales de la Diputación Foral de Álava se han unido al presente expediente, dando por cumplido el trámite de audiencia previsto por el artículo 46.3 TRLCSP. En el escrito de alegaciones la adjudicataria del contrato solicita la desestimación del recurso.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

### Errekurtsoa onartua izateko aukera

### Admisibilidad del recurso

**LEHENENGOA.-** Errekurtso berezi hau 790.807,57 eurotan (BEZik gabe) zenbatetsitako balioa duen zerbitzu-kontratu bat esleitzeko egintzaren aurka jarri da.

**PRIMERO.-** El presente recurso especial se interpone contra el acto de adjudicación de un contrato de servicios cuyo valor estimado es de 790.807,57 euros, IVA excluido.

Horrela bada, kontuan harturik esparru akordio batez ari garela, zeinaren egitekoa den Kontratu Legearen 16.1.b.) artikuluan aipatzen diren eta erregulazio harmonizatuari lotuak dauden zerbitzu kontratuak bideratzea, kontratazio gaietako errekurtso berezia jar daiteke errekurritutako egintzaren aurka, hala xedatua baitago 40. artikuluko 1.a) eta 2.c) apartatuetan. Eta errekurtso horren berri izateko eskumena auzitegi honi dagokio, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortzeko eta arautzeko 24/2010 Foru Dekretuak, irailaren 28koak, 2.3.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Por lo tanto, tratándose de un contrato de servicios sujeto a regulación armonizada, de los contemplados en el artículo 16.1.b) TRLCSP, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1.a) y 2.c) del artículo 40. Y la competencia para conocer del mismo corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.3.a) del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**BIGARRENA.** Errekurtsoa Kontratuen Legeko 42. artikuluan xedatutako legitimazioaren eskakizuna betetzen duen pertsona batek jarri du, betiere 44.2 artikuluan finkatutako epearen barruan eta asmo horren berri, 44.1 artikuluan ezarritako eran, kontratazio organoari aurretik emanda.

**SEGUNDO.-** El recurso ha sido interpuesto por persona que reúne el requisito de legitimación establecido en el artículo 42 TRLCSP, dentro del plazo previsto en el artículo 44.2 y habiéndolo anunciado previamente al órgano de contratación en la forma prevista en el artículo 44.1.

**<u>Gaiaren mamia</u>**

**<u>Fondo del asunto</u>**

**HIRUGARRENA.-** Lehenik eta behin, Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundietako administrazio-espedienteetatik errekurtsoa ebazteko beharrezkoak diren datuak atera behar dira.

**TERCERO.-** En primer lugar es preciso extraer de los expedientes administrativos de las Diputaciones Forales de Gipuzkoa y Álava los datos necesarios para la resolución del recurso.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak (orduko izenaren arabera) 2013ko apirilaren 23an hartutako erabakiaren bidez, berretsi egin zen bingo-kartoien prestaketa eta horniketa kontratatzeko Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundien arteko funtzionamendurako 1999ko urriaren 19ko Diputatuen Kontseiluan hartutako erabakiaren bidez onartutako oinarrien indarraldia; era berean, onartu egin ziren bingo izeneko jokoan aritzeko kartoien konposizioa egin, inprimatu eta hiru foru-aldundiei banatzeko zerbitzuak kontratatzeko espedientea zein ezaugarri teknikoen eta administrazio-baldintza berezien agiriak, eta, halaber, kontratua esleitzeko izapide arruntaren bidez prozedura irekiari hasiera ematea erabaki zen. Horrez gain, erabakiaren bidez, Ogasun eta Finantzetako foru-diputatua ahaldundu zen, kontratua esleitu eta formalizatzeko eta kontratua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak ziren ekintzak burutzeko eta erabakiak eta ebazpenak emateko.

Mediante Acuerdo del entonces denominado Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Gipuzkoa de 23 de abril de 2013 se ratificó la vigencia de las bases de funcionamiento entre las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa para la contratación de la confección y suministro de cartones de bingo, aprobadas por Acuerdo del Consejo de Diputados de 19 de octubre de 1999, y se aprobaron tanto el expediente para la contratación de los servicios de composición, impresión y distribución de cartones del juego denominado Bingo a las tres Diputaciones forales, como los pliegos de prescripciones técnicas y de cláusulas administrativas particulares, disponiendo asimismo la apertura del procedimiento abierto por el trámite ordinario para la adjudicación del contrato. Asimismo, el Acuerdo facultaba a la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas para la adjudicación y formalización del contrato y para adoptar cuantos actos, decisiones y resoluciones fueran necesarias para la correcta ejecución del contrato.

Aipatutako erabakiaren azalpenetan xedatutakoaren

Según lo dispuesto en la parte expositiva del referido

arabera, bingo-kartoien prestaketa eta horniketa kontratatzeko orduan hiru foru-aldundiek elkarrekin jarduteko funtzionamendua arautzen duten oinarrien helburua da Euskal Autonomia Erkidego osoan bete beharrekoa den bingo-kartoien ereduen uniformetasuna lortzea, Bingo-jokoaren Araudia onartzen duen otsailaren 10eko 31/2004 Dekretuaren bidez onartutakoaren arabera eta bingo jokoaren gaineko zergaren tasa ordainarazteko ondorioetarako, izan ere, erabiltzen diren kartoiek ondorio estankoak izan behar dituzte horretarako. Hori guztia maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartu zen eta indarrean dagoen ekonomia-itunean ezarritakoari jarraituz, horren arabera foru-aldundiek eskumena baitute zori, enbido edo adur jokoen gaineko tasa ordainarazteko, ekintza ezargarria Euskadin egiten denean.

Acuerdo, las bases de funcionamiento entre las tres Diputaciones Forales para proceder de forma conjunta en la contratación de la confección y suministro de cartones de bingo tienen por objeto alcanzar la uniformidad de los modelos de cartones de bingo exigida en toda la Comunidad Autónoma de Euskadi por el Reglamento del juego del bingo de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por el Decreto 31/2004, de 10 de febrero, a efectos de la exacción de la tasa fiscal sobre el juego del bingo, que requiere la existencia de unos cartones que tienen la consideración de efectos estancos. Todo ello de conformidad con lo dispuesto por el vigente Concierto Económico, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, que atribuye a las Diputaciones Forales la exacción de la tasa sobre los juegos de suerte, envite o azar, cuando el hecho imponible se realice en el País Vasco.

Eskaintzaren iragarkia 2013ko apirilaren 25eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, maiatzaren 9ko Estatuko Aldizkari Ofizialean eta apirilaren 26ko Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

El anuncio de licitación fue publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 25 de abril, en el Boletín Oficial del Estado el 9 de mayo y en el Diario Oficial de la Unión Europea el 26 de abril de 2013.

Iragarki horien arabera, espedientea izapidetzeko ardura izan duen bulegoa Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren Idazkaritza Teknikoa izan da.

Según estos anuncios, la dependencia que se ha encargado de la tramitación del expediente es la Secretaría Técnica de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de la Diputación Foral de Álava.

Errekurtso honek duen eraginari dagokionez, egokia da nabarmentzea ezaugarrien taulako U) atalean aurreikusitako esleipen-irizpideak honako hauek direla:

En lo que a este recurso afecta conviene resaltar que los criterios de adjudicación previstos en el apartado U) del cuadro de características son los siguientes:

Formulen bidez ebaluagarriak:

1.- Prezioa:……………………… ……………...50 puntu.
2.- Hobekuntza entregatzeko epean:………………..5 puntu.
3.- Hobekuntza prezioa berrikusteko formulan:…5 puntu.

Formulen bidez ez ebaluagarriak:

1.- Eskaintza teknikoaren kalitatea:………………30 puntu.
2.- Segurtasuna hornikuntzan:……………………10 puntu.

Evaluables mediante fórmulas:

1.- Precio:....…………………….. ……………...50 puntos.
2.- Mejora plazo de entrega:..……………………5 puntos.
3.- Mejora en la fórmula de revisión de precio:...5 puntos.

No evaluables mediante fórmulas:

1.- Calidad de la oferta técnica:…………………30 puntos.
2.- Seguridad en el suministro:…………………10 puntos

**LAUGARRENA.-** Eskaintzak aurkezteko epean hiru lizitatzaileen proposamenak jaso ziren.

**CUARTO.-** En el plazo de presentación de ofertas se recibieron proposiciones de tres empresas licitadoras:

2013ko ekainaren 10ean, kontratazio-mahaia eratu zen ekitaldi publikoan, proposamen teknikoak dituzten "C" gutun-azalak irekitzeko; gutun-azalak ireki eta gero, formulen bidez ebaluagarriak ez diren irizpideen balorazioa egiteko ardura zuten zerbitzuei eman zitzaizkien.

El día 10 de junio de 2013 se constituyó la Mesa de contratación en acto público para proceder a la apertura de los sobres "C" de Propuestas Técnicas y tras su apertura se entregaron a los Servicios encargados de la valoración de los criterios no evaluables mediante fórmulas.

2013ko uztailaren 29an, kontratazio-mahaia eratu zen

Con fecha 29 de julio de 2013 la Mesa de contratación

ekitaldi publikoan, proposamen ekonomikoa eta eskaintzak formulen bidez ebaluagarriak diren esleipen-irizpideen arabera eskaintzak baloratzeko agiriak eduki behar zituzten eskaintzen "A" gutun-azalak irekitzeko.

se constituyó en acto público para proceder a la apertura de los sobres "A" de las ofertas que debían contener la proposición económica y los documentos que permitieran valorar las ofertas de acuerdo con los criterios de adjudicación evaluables mediante fórmulas.

Ekitaldi horretan, aurretiaz, agerian jarri zen kontratazio-prozeduratik kanporatu behar zela EMFASIS BILLING & MARKETING SERVICES enpresa lehiatzaileak aurkeztutako proposamena, "C" gutun-azalaren barruan sartu zuelako "A" gutun-azalean sartu behar zen formularen bidez baloragarriak diren esleipen-irizpidetako bati buruzko informazioa, eta era horretan bete gabe geratzen zelako Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 26. artikuluan aurreikusitakoa.

En dicho acto, con carácter previo, se puso de manifiesto que debía ser excluida del procedimiento de contratación la propuesta presentada por una de las empresas licitadoras, EMFASIS BILLING & MARKETING SERVICES, porque había incluido dentro del contenido del sobre "C", información correspondiente a uno de los criterios de adjudicación valorables mediante fórmula que debía explicitarse en el sobre "A", lo que implicaba el incumplimiento de lo previsto por el artículo 26 del Real Decreto 817/2009 de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley de Contratos del Sector Público.

Era berean, onartutako bi eskaintza teknikoen balorazioaren emaitza irakurri zen; balorazioa formulen bidez ebaluagarriak ez diren irizpideen arabera egin zen, ezaugarrien taulan ezarritakoaren arabera.

Asimismo, se dio lectura al resultado de la valoración de las dos ofertas técnicas admitidas, efectuada de acuerdo a los criterios no evaluables mediante fórmulas establecidos en el cuadro de características.

Ondoren, formulen bidez ebaluatu beharreko irizpideak erabilita baloratzekoak ziren eskaintzen "A" gutun-azalak ireki zituen mahaiak, eta bi eskaintzak baliozkoak zirela erabaki zen, ezaugarrien taulan ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen zituztelako.

A continuación la Mesa procedió a la apertura de los sobres "A" que contenían las dos ofertas para los criterios a valorar mediante fórmulas, determinándose la validez de ambas por cumplimiento de los requisitos mínimos establecidos en el cuadro de características.

**BOSGARRENA.-** 2013ko uztailaren 31n, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren Erregistroan erreklamazio-idazki bat sartu zen, IMPRENTA UNIVERSAL SL merkataritzako sozietatearen izenean eta ordezkaritzan ziharduen (…) aurkeztua eta Kontratazio Mahaiko buruari zuzendua, formulen bidez ebaluagarriak ez diren irizpideen arabera egindako eskaintzen balorazioaren aurka; Arabako Foru Aldundiko Kontratu Errekurtsoen Foru Organo Administratiboak ez zuen errekurtso hori onartu, abuztuaren 7ko 3/2013 Ebazpenaren bidez, SPLTBko 40.2.b) artikuluan ezarritakoari jarraituz kontratazioaren alorreko errekurtso berezi baten bidez aurkaratu ezin den izapide-egintza baten aurka jarri zelako.

**QUINTO**.- El día 31 de julio de 2013 tuvo entrada en el Registro del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de la Diputación Foral de Álava, un escrito de reclamación presentado por (…), actuando en nombre y representación de la mercantil IMPRENTA UNIVERSAL S.L., dirigido al Presidente de la Mesa de Contratación contra la valoración de las ofertas efectuada de acuerdo a los criterios no evaluables mediante fórmulas, recurso que fue inadmitido por el Órgano Administrativo Foral de Recursos Contractuales de la Diputación Foral de Álava mediante Resolución 3/2013, de 7 de agosto, por haberse interpuesto contra un acto de trámite no susceptible de impugnación a través del recurso especial en materia de contratación de conformidad con lo dispuesto por el artículo 40.2.b) TRLCSP.

**SEIGARRENA.-** 2013ko irailaren 17an, Kontratazio Mahaia eratu zen, SIGNE SA erakundeari kontratua esleitzeko proposamena egiteko, aurkeztu ziren eta baztertu ez ziren eskaintzen guztizko balorazioa kontuan izanda, hau da:

1. SIGNE, SA: 85,63 puntu.

**SEXTO**.- Con fecha 17 de setiembre de 2013 se constituyó la Mesa de Contratación para realizar la propuesta de adjudicación del contrato a la entidad SIGNE, S.A., teniendo en cuenta la siguiente valoración total de las ofertas presentadas y no excluidas:

1. SIGNE, S.A.: 85,63 puntos.

2. IMPRENTA UNIVERSAL, S.L.: 82,40 puntu.

2013ko azaroaren 26ko 1012/2013 Foru Aginduaren bidez, Ogasun eta Finantzetako Departamentuko foru-diputatuak berretsi zuen EMFASIS BIILING & MARKETING SERVICES enpresak aurkeztutako eskaintzaren bazterketa, kontratazio-mahaiak hala erabakia, eta kontratua esleitu zion kontratazio-mahaiak proposatutako enpresa lehiatzaileari.

**ZAZPIGARRENA.-** Ebazpen horren aurka IMPRENTA UNIVERSAL SL enpresak oraingo errekurtsoa jarri zuen; bertan alegatu zuen esleipendunak aurkeztutako bingo-kartoien ereduek, proposamen teknikoak zituzten “C” gutun-azalak irekitzeko 2013ko ekainaren 10ean egin zen ekitaldi publikoan erakutsi zizkiotenek, ez dituztela betetzen ezaugarri teknikoen agirian ezarritako baldintzak, aurrealdean ez daudelako offset motako tintez inprimatuta. Hortaz, bere ustez kontratazio-mahaiak gehiegi baloratu du esleipendunak aurkeztutako eskaintza teknikoa edo gutxiegi baloratu du bere eskaintza teknikoa, agirian ezarritako ezaugarri tekniko guztiak bete arren (besteak beste, offset-inprimaketa). Eta hori egiaztatzeko, 3 zenbakiko agiria gehitu du, hau da, HENCHE Tecnología Gráfica Industrial SA enpresak emandako ziurtagiria, 2013ko apirilaren 15ekoa.

Horregatik eskatu du errekurtsoa jarri zaion ebazpena deuseztatzeko ebazpena ematea eta, halaber, jarduerak lehiaketako eskaintza teknikoak baloratzeko unera atzera egitea eta eskaintza horiek berriro baloratzea, formulen bidez ebaluagarriak ez diren irizpideak erabilita.

**ZORTZIGARRENA.-** Kontratazio-organoak errekurtsoari dagokionez bidali duen txostenean, aurrekariak eta kontratu-prozedura izapidetzeko ekintzak azaldu eta gero, adierazten da errekurtso-jartzaileak berak onartu duela kontratazioa arautzen duten agirietan ez dagoela ezarrita ereduak aurkeztu behar direnik, eta errekurtsogilearen argudioari dagokionean (hau da, enpresa lehiatzaileek ereduak eskaintzetan gehitzea erabakitzen dutenean, mahaiak ebaluatu eta kontuan hartu behar dituela ebaluatzeko irizpideak ezartzeko orduan), egiaztatu du errekurtsogileak ez duela ezagutzen esleipendunak aurkeztutako eskaintza teknikoaren edukia eta, errekurtsogileak berak bere idazkian onartzen duen bezala, agirietan ez dagoela ezarrita ereduak aurkeztu behar direnik; hala bada, ereduak aurkeztu ezean, ezin dira oinarri izan inongo balorazioa egiteko.

2. IMPRENTA UNIVERSAL, S.L.: 82,40 puntos.

Mediante Orden Foral 1012/2013, de 26 de noviembre de 2013, la Diputada del Departamento de Hacienda y Finanzas ratificó la exclusión de la oferta presentada por la empresa EMFASIS BIILING & MARKETING SERVICES acordada por la Mesa de Contratación, y adjudicó el contrato a la empresa licitadora propuesta por la Mesa de contratación.

**SÉPTIMO.-** Contra esta resolución IMPRENTA UNIVERSAL, S.L. interpone el presente recurso en el que alega que las muestras de cartones de bingo presentadas por la adjudicataria, que le fueron exhibidas en el acto público de apertura de los sobres “C” de Propuestas Técnicas, celebrado el 10 de junio de 2013, no cumplen los requisitos exigidos en el pliego de prescripciones técnicas, al no estar impresos en su anverso con tintas offset y, por tanto, considera que la Mesa de contratación ha sobrevalorado la oferta técnica presentada por la adjudicataria, o ha infravalorado su oferta técnica, que cumple con todas las prescripciones técnicas exigidas por el pliego, y entre ellas, la impresión en offset, para cuya acreditación acompaña como Documento nº 3 certificado emitido por la empresa HENCHE, Tecnología Gráfica Industrial S.A. de fecha 15 de abril de 2013.

Por ello solicita que se dicte resolución por la que se anule la resolución recurrida y se retrotraigan las actuaciones al momento en el que corresponda valorar las ofertas técnicas del concurso, debiendo realizar una nueva valoración de las mismas mediante criterios no evaluables mediante fórmulas.

**OCTAVO.-** En el informe que en relación con el recurso ha remitido el órgano de contratación, tras la exposición de los antecedentes y los actos de tramitación del procedimiento contractual, se señala que la propia recurrente admite que los pliegos que rigen la contratación no exigen la presentación de muestras, y en relación a la argumentación que aquélla realiza en cuanto a que desde el momento que las empresas licitadoras deciden incorporar las muestras a su oferta deben ser evaluadas y tomadas en consideración por la Mesa de contratación a la hora de aplicar los criterios de evaluación, constata que la recurrente desconoce el contenido de la oferta técnica presentada por la adjudicataria, y que, tal como ella misma reconoce en su escrito, los pliegos no exigen la presentación de muestras, por lo que de no presentarse no pueden ser fundamento para ninguna valoración.

Halaber gehitu du Administrazioak ezaugarri teknikoak betetzen diren baloratzeko orduan erabili beharreko oinarri bakarra dela lehiatzaileek aurkeztutako dokumentazioa, bertan deskribatuta baitaude aipatutako kartoiak prestatzeko erabiliko dituzten ezaugarriak eta prozedurak, eta dokumentazio hori aztertu eta horri buruzko informazioa eman zuen Arabako Foru Aldundiko Inprenta Zerbitzuak, eta ez zuela aurkitu eskatutako baldintza tekniko bat ere betetzen ez zela egiaztatzeko inolako elementu edo inguruabarrik.

Añade que la única base de valoración del cumplimiento de los requisitos técnicos que debe usar la Administración la constituye la documentación aportada por los licitadores en la que describen las características y los procedimientos que seguirán para la confección de los citados cartones, y que esa documentación fue examinada, analizada e informada por el Servicio de Imprenta de la Diputación Foral de Álava, sin que se apreciara ningún elemento o circunstancia que pudiera implicar un incumplimiento de ninguna de las condiciones técnicas exigidas.

Horregatik guztiagatik, errekurtsotik eta administrazio-espedientetik ez da ondorioztatzen aurkeztutako eskaintzei okerreko balorazioa egiteko inguruabarrik dagoenik eta, hala, errekurtsoa ezestea proposatzen da.

Por todo ello, al no desprenderse del recurso y del expediente administrativo la existencia de ninguna circunstancia de la que pudiera derivarse una valoración incorrecta de las ofertas presentadas, se propone la desestimación del recurso.

**BEDERATZIGARRENA.-** Esleipendunak aurkeztutako alegazioen idazkian adierazi du, lehenik eta behin, ereduak aurkeztea ez dela eskaintza baloratzeko baldintzarik, "C: Ezaugarri Teknikoak" gutun-azalaren edukiari buruz administrazio-baldintza berezien agiriaren 6.3. atalean eta Ezaugarrien Taulako esleipen-ezaugarriei buruzko U) letran ezarritakoari jarraituz, eta alderdi lehiatzaileek ezin dutela inolaz ere zehaztu zer izan beharko litzatekeen baloratzeko irizpidea, SPLTBren 150.2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**NOVENO.-** En su escrito de alegaciones la adjudicataria dice, en primer lugar, que la presentación de muestras no es un requisito para la valoración de la oferta, de acuerdo con lo establecido en el apartado 6.3 del pliego de cláusulas administrativas particulares referente al contenido del sobre "C": Requisitos Técnicos, así como en la letra U) del Cuadro de Características, referente a los criterios de adjudicación, y que en ningún caso las partes licitantes pueden determinar lo que debería ser criterio de valoración de conformidad con lo dispuesto por el artículo 150.2 TRLCSP.

Bigarrenez, esleipendunak ezeztatu ditu errekurtsogileak egindako baieztapen guztiak SIGNE SA enpresak aurkeztutako ereduei buruz, uste duelako memoria teknikoan adierazitako guztia eta agirietan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela, bereziki kartoiak offset tintaz inprimatuta egoteari dagokionez, eta aurkeztutako memoria teknikora bidaltzen du.

En segundo lugar, la adjudicataria niega todas las afirmaciones que la recurrente realiza sobre las muestras presentadas por SIGNE S.A., por entender que cumplen con todo lo indicado en la memoria técnica, así como con todos los requisitos establecidos en los pliegos, especialmente con el relativo a la impresión de los cartones en offset, con remisión a la memoria técnica presentada.

Horregatik, ez du onartzen eskaintza teknikoak berriro baloratzea, eta uste du errekurtsoaren arrazoia ustez fede gaiztoa izan daitekeela, prozedura luzatzeko asmoz, eta errekurtsoa ezestea eskatu du.

Por ello se opone a que vuelvan a valorarse las ofertas técnicas, considerando que el recurso puede estar motivado por presunta mala fe, con intención de dilatar el procedimiento, y solicita que el recurso sea desestimado.

**HAMARGARRENA.-** Kontratazioaren alorreko errekurtso bera jarri zen Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak kontratu bera esleitzeko 2013ko azaroaren 26an emandako 575/2013 Erabakiaren aurka, eta Arabako Foru Aldundiko Kontratu Errekurtsoen Foru Organo Administratiboak ezetsi egin zuen, 2014ko urtarrilaren 9ko 4/2013 zenbakiko Ebazpenaren bidez.

**DÉCIMO**.- Idéntico recurso especial en materia de contratación interpuesto contra el Acuerdo 575/2013 del Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Álava de 26 de noviembre de 2013, de adjudicación del mismo contrato, ha sido desestimado por el Órgano Administrativo Foral de Recursos Contractuales de la Diputación Foral de Álava por Resolución nº 4/2013 de 9 de enero de 2014.

Ondorioz, bi errekurtsoen funtsezko berdintasuna

En consecuencia, dada la identidad sustancial de

kontuan izanda, egokia da errekurtso hau ezestea, aipatutako ebazpenean jasotako oinarri berei jarraituz. Hona hemen aipatutako oinarriak:

ambos recursos, procede su desestimación con base en los mismos fundamentos recogidos en aquella Resolución que a continuación se reproducen:

*"**QUINTO**.- La representación de IMPRENTA UNIVERSAL, S.L. pretende que se valoren "adecuadamente" –dice– las características técnicas de su oferta frente a la presentada por SIGNE, S.A., elevando la puntuación que le corresponde o disminuyendo la atribuida a la adjudicataria, porque las características técnicas de la muestra por dicha entidad presentada es muy superior en calidad y seguridad a la del adjudicatario, que a simple vista – en su opinión – es muy deficiente por no emplear tinta Offset en su anverso como señala el pliego de prescripciones técnicas.*

*A su vez, en lo que implica una palmaria desautorización de las razones de su recurso, reconoce que ni el pliego de condiciones ni el cuadro de características exigen que el licitador acompañe una muestra del cartón a fabricar en caso de resultar adjudicatario, pues el propósito de la no exigencia es que las licitadoras no incurran en unos gastos muy elevados ya que la presentación de las mismas conlleva un coste muy importante en la elaboración de fotolitos, procesado de planchas, preparaciones y ajustes de registro y entonación de colores en las máquinas de impresión, perforados de cartones, etc. Y por último la impresión de las propias muestras.*

*Ello no obstante, en una particularísima interpretación señala que –sin embargo- en el mismo momento que las empresas licitadores deciden incorporar las muestras a su oferta deben ser evaluadas y tomadas en consideración.*

***SEXTO**.- Pues bien, semejante argumentación:*

*1º. Olvida que las prescripciones del pliego constituyen la ley inter partes del contrato, y vinculan tanto para la Administración como para los licitadores a la obligada observancia y sujeción a sus términos estrictos. No cabe separarse de los Pliegos rectores de la licitación que son los que predeterminan las cláusulas más convenientes para la satisfacción de los intereses públicos, cuya modificación perjudicaría de forma esencialísima a los licitadores que acomodan su oferta a las cláusulas aprobadas. Dicha inalterabilidad es corolario necesario de su predeterminación y precisión.*

*2º. Deja de lado que la valoración realizada se atiene estrictamente a los pliegos del concurso y se enmarca en el ámbito de la denominada "discrecionalidad técnica" jurisprudencialmente reconocida a los organismos técnicos calificadores y de valoración que, como señala la Sentencia, entre otras, del Tribunal Supremo de 15.9.2009, goza de una presunción de certeza y razonabilidad apoyada en la especialidad e imparcialidad de los órganos encargados de la valoración.*

*Dicha presunción "iuris tantum" sólo puede desvirtuarse si se acredita la infracción o el desconocimiento del proceder razonable que se presume del órgano técnico de valoración, ya sea por incurrir en desviación de poder, arbitrariedad o por fundarse en patente y notorio error o vulneración de los hechos determinantes, extremos que deberán ser acreditados por quien los alega.*

*Por lo tanto, dicha discrecionalidad técnica reduce las posibilidades de control jurídico y jurisdiccional sobre la actividad evaluadora de los órganos de la Administración prácticamente a la inobservancia de los elementos reglados del ejercicio de la potestad administrativa y de error ostensible o manifiesto, quedando fuera de ese limitado control aquellas pretensiones de los interesados, como la que ahora nos ocupa, que sólo postulan una evaluación alternativa a la del órgano calificador que no está sustentada en un posible error manifiesto, sino todo lo contrario en la exigencia de la modificación o alteración de las reglas del concurso mediante valoración de una muestra que no es exigible, cuya realización supondría una flagrante vulneración de lo establecido en los pliegos con infracción de los principios de transparencia, igualdad de trato, publicidad y concurrencia.*

*3º. Omite decir que la valoración presentada por los licitadores se ha efectuado según la oferta técnica presentada por los licitadores de acuerdo con las condiciones fijadas para los criterios no evaluables mediante fórmulas en el apartado U) del cuadro de características, y no de las muestras presentadas, que no se exigen en el apartado Q) de dicho cuadro.*

***SÉPTIMO**.- Por otro lado, al contrario de lo alegado por la recurrente, la visión práctica del cumplimiento de las prescripciones técnicas y de los requisitos de seguridad del cartón de bingo sólo podrá hacerse en el momento de su confección definitiva con arreglo a los términos del contrato y a la oferta del adjudicatario, sin que puedan confundirse las fases contractuales de valoración de las ofertas y de los criterios de adjudicación con las normas o condiciones de ejecución del contrato, de forma que si –en su momento- se incumplieran éstas se pondrían en marcha los correspondientes mecanismos legales para su corrección o sanción.*

*Por lo expuesto debe desestimarse el recurso planteado por Imprenta Universal, S.L. por ser contrario a las reglas de previsión, precisión e inalterabilidad de los criterios o aspectos objeto de valoración y pretender sustituir con su opinión y sin sustento probatorio alguno la decisión e informe del órgano técnico de valoración, cuya presunción de legalidad, racionalidad y certeza no ha sido (desvirtuada)".*

**HAMAIKAGARRENA**.- SPKLTBaren 47.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio gaietako errekurtso bereziaren ebazpenean, halaber, esleipen egintzaren etenaldia bertan behera uzteko erabakia hartu behar da, baldin eta ebazpena emateko garaian, etenaldiak indarrean jarraitzen badu.

**HAMABIGARRENA**.- Errekurtsoan ez dugu antzeman SPKLTBaren 47.5 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Auzitegi hau errekurtsogileari isuna jartzera bultza lezakeen fede txar edo ausarkeriarik.

Ondorioz, kontratazio alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

**ERABAKITZEN DU**

**LEHENENGO.-** Ezestea IMPRENTA UNIVERSAL S.L. enpresak jarritako kontratazio gaietako errekurtso berezia.

**BIGARREN.-** Altxatzea SPKLTBaren 45. artikuluan aurreikusitako esleipen egintzaren etete automatikoa.

Kontratuen Legeko 49.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

**UNDÉCIMO.-** Según lo dispuesto en el artículo 47.4 TRLCSP, la resolución del recurso especial en materia de contratación debe acordar también el levantamiento de la suspensión del acto de adjudicación si en el momento de dictarla continuase suspendido.

**DUODÉCIMO**.- No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a la empresa recurrente una multa en los términos previstos en el artículo 47.5 TRLCSP.

En su virtud, este Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

**ACUERDA**

**PRIMERO.-** Desestimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la mercantil IMPRENTA UNIVERSAL S.L.

**SEGUNDO.-** Levantar la suspensión automática del acto de adjudicación prevista en el artículo 45 TRLCSP.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 49.1 TRLCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**Donostia, 2014ko urtarrilaren 14a/San Sebastián, 14 de enero de 2014**